

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoarekin duen lankidetzarako protokoloa zabaldu eta eguneratu du

*Foru Gobernuak biharko bileran lankidetzarako akordioaren testua onartuko du, eta testu horrek bi autonomia erkidegoek 2009an sinatutakoa ordeztuko du*

Asteartea, 2016.eko maiatzak 3

Nafarroako Gobernuak bihar, asteazkena, egingo den bileran, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren arteko lankidetzarako protokolo orokor bat sinatzea onartuko du; haren bitartez, bi autonomia erkidegoek 2009an izenpetutako akordioa zabaldu eta eguneratuko da.



Foru Governuko bilera baten irudia.

Eusko Jaurlaritzak gaur goizean onartu duen dokumentua bi autonomia erkidegoetako lehendakariak formalizatuko dute ondoren.

Protokoloak elkarrekiko lankidetzaren izateko oinarriak ezartzen ditu eskumeneko interrelazio-arlo zehatz batzuetan eta bi aldeetarako interesekoak diren gaietan; lankidetzaren horrek, "bi autonomia erkidegoen interes komunak asebetetzen lagunduko du arrazionaltasunari, sinpletasunari, gardentasunari eta baliabideen ekonomiari dagokienez; horrek guztiak bi eskualdeetako zerbitzuen eta haien kudeaketaren kalitatea hobetzen lagunduko du".

Foru Gobernuaren ustez, autonomia erkidegoek jorratu beharreko askotariko gaiek eta mugitzen diren komunitate-esparruak autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren beharra eragiten dute. Eta alde horretatik, gogora ekarri du Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak harreman berezia dutela, eta haren berezigarri direla: kidesun historikoa, kulturala, linguistikoa, turistikoa eta soziokulturala; lankidetzarako tradizio luzea bat partekatzen dute, eta "haiei esker, beraien administrazioen jardueren koordinazioa hobetzeko loturak finkatuko dira".

Akordio hori Nafarroak inguruko eskualdeekin jadanik sinatuta dituen antzekoa da (Errioxa eta Aragoirekin). Testu berriak bi komunitateek 2009ko uztailaren 3an izenpetutakoa zabalitzen eta eguneratzen du. Orduko hura honako alderdi hauetara mugatzen zen bereziki: abiadura handiko trenak, Nafarroan ETB ikusteko lege-emisioak eta euskararen sustapena.